



Barriolaren txanda helduda Buruz Burukoan

LEITZA ▶ Donostiako Atano III.a pilotalekuan lehiatuko da leitzarra Olaizola goizuetarraren aurka

FESTA ▶ Finala amaitzean, Basa-Kabin eta Barriolaren konpainian bilduko dira leitzarrek ▶ 7

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶

EAE-ANVk «dagozkion eserlekuak» eskatuko ditu udal osaketetan ▶ 4

TOLOSA ▶

Saskibaloia eta futbol taldeek eginiko lana ▶ 3



ESTI EZEIZA

JUAN GARMENDIA LARRAÑAGA ▶ ETNOLOGOA ETA IDAZLEA

«Interes berezia du liburuak, gaur egun serora gutxi geratzen baitira»

‘Seroras y sacristanes’ liburua aurkeztu zuen atzo tolosarrak; XVI. mendetik serorek eginikoa kontatzen du ▶ 2

tolosako

SANJOANETAKO AZOKA BEREZIA
eskualdeko / murgilduak

- Bi azoka batean: **AZOKA EKOLOGIKOA** eta **SANJOANETAKO AZOKA** (produktu ekologikoa / kalitateko produktua)
- **ZERKAUSIKO SALTZAILEEN ARTEAN SARI BANAKETA**
Zerkausian: barazki, onena, fruta, onena, pasta, poltrena; barietate handieneko pasta

TOLOSA ▶ GIZARTEA



Adinekoen astearen baitan, bingoan aritu ziren atzo. E. EZEIZA

Adinekoen astearen baitan, bingoa

Adinekoen astea ospatzen ari dira egun hauetan lurreamendi egoitzan. Atzo, ekitaldien artean, bingoan zein beste jolas batzuetan aritu ziren lurreamendikoak. Gaur ere ospakizunekin jarraituko dute, hasteko, hamaiketakoia egingo dute egoiliarrek, familia eta lagunekin batera. Ondoren, omenaldia egingo diete 90 urtetik gora duten adinekoiei.

ANOETA ▶

Ikastolaren eguna ospatuko dute egun guztian

Bihar, Anoetako Herri Ikastolaren Eguna ospatuko dute. Egun horretarako antolatutako dituzten ekimenak ondorengoak dira: ibilaldi neurtua, kalejira, umeen jaialdia, esku lanen erakusketa, bazkaria, sari banaketa, jolasak...

TOLOSA ▶

Koadrila eguneko bazkarirako txartelak salgai

Sanjoanetako koadrilla egunean egingo den bazkarian parte hartzeko txartelak gaur erosi ahal izango dira Orbela tabernan, 11:30etik 14:00etara, eta azkeneko egunez, astearte eta astezkean, 19:30etik 21:00etara.

JUAN GARMENDIA LARRAÑAGA ▶ ETNOLOGOA ETA IDAZLEA

«Egun serora gutxi geratzen direlako interes berezia du liburuak»

‘Seroras y sacristanes’ izeneko bere azken lana aurkeztu zuen atzo iluntzean Juan Garmendia etnografoak



E. EZEIZA

sakristauen biziaz ere hitz egingen dut. Nire bizitzan ezagutu ditudan sakristauen inguruko aipamenak ere egiten ditut, esaterako olerkari izan zen batena. Dena den, gaur egun sakristau leku batzuetan baldin badaude ere, gutxi geratzen dira eta adinekoak dira, gazteak ez baitira sartzen. Seroretaz ere berdina esan daiteke, gutxi batzuk badaude ere, ez dituzte garai bateko seroren lanak egingen. Horregatik du interesa liburu honek, egun serora gutxi daudelako.

Egungo gazte askok ez dituzte ezagutuko. Zeintzuk dira serora eta sakristauak?

Garai bateko serorek lan handia egingen zuten, beti ere, elizaren barruan apaizari lagundu... Liburu honetan, bi horien zeintzuk izan ziren eta zein eginbehar zituzten azaltzen dut. Amaitzeko, alegoria gisa, oso ortodoxoak ez diren lau konjuru idatzi ditut.

Izenburua irakurrita, jendeak erlijioaren inguruko liburu serio bat dela pentsa dezake. Ez da horrela, nire ustez irakurtzeko atsegina da.

Garai bateko serorak eta egungoak berdinak al dira?

Antzinako serorek beste garrantzia zuten. Berastegiko apaizak erakutsi zidan XVIII. mendeko serora baten kontratua, eta bertan agertzen dira, zeintzuk diren bere eginbeharrik.

Nori zuzendua dago liburuak?

Mundu guztiari, ikasteko bide bat izan daiteke, eta ikastea denentzako da onuragarri.

ESTI EZEIZA

Etнологia munduan, eta idazten 50 urte inguruko ibilbidea duen Juan Garmendia Larrañagak (Tolosa, 1926) bere azken lana aurkeztu zuen atzo. *Seroras y Sacristanes* izenburupean, hauen inguruan mintzatzen da bere liburu berrian. **Nola deskribatuko zenuke liburuak?**

Izenburuak berak dioen bezalal serora eta sakristauz hitz egiten du liburuak. Liburu laburra da eta Rafael Munoa dotoretua izan da. Honek marrazki batzuk egin baititu lan honetarako. **Zergatik aukeratu zenuen gai hau?**

Urte asko daramatzat idazten eta gai asko jorratu ditut. Seroren mundua ukituta neukan, baina zerbait sakonagoa egin nahi nuen. Lehen ere marjinatuaren inguruan hitz egitea gustatu izan zait, eskale eta morrietaz, esaterako.

Serorak marjinatuak zeudela esango al zenuke?

Ez, ez ziren horrela, baina gaur bitxi bezala ikusten ziren.

Zer da zehazki kontatzen duzuna?

Liburu laburra izan arren, XVI. mendetik hasita, serorek egin dituzten lanak eta beraien gora beherak kontatzen ditut. Horien artean, sakristauak indartzen joan ziren bezala, serorak ahulduz joan ziren. Bestalde

iragarki laburrak ▶

LANA

Zaintzailea. Haurrak zaintzeko emakume euskalduna eskaintzen da. Telefonoa: 687 32 68 77.

Zarbitzaria. Neska euskalduna behar da kafetegai batean lan egiteko. Esperientzia. Igande eta jai egunak libre. 943 67 04 46.

Ile-apaintzailea. Esperientziadun ileapaintzailea behar da Anoetan. Kontratua eskaintzen da. Interesatuak deitu 943 65 35 29ra. **Mantente-lanetarako**

teknikaria. IPARPET. Lekunberri-Leitza. Informazio eta eskintza gehiago www.iparpet.com/webgunean.

SALGAI

Etxebizitza. Etxebizitza salgai Tolosan. 3 logela, egongela, 2 bainugela eta trastelekuarekin. Egoera ezin hobean, eta sartzeko moduan, ikuspegi ederrak. 44.000.000 pezeta. Interesatuak deitu 626 75 27 44ra.

1. hitza eguna
 ERAKURTZEAN AULESTIN

08:00 Mundu irteara
 11:00 Jai guztien irakurketa.
 Prentsa taldearen martxoan goia guztian
 Kalek kale euskal kantuekin.
 11:30etik 13:30era Umeen Gunea
 12:00 Euskaraz dantzak
 12:30 Triki-barriko-poteoa.
 12:30etik aurrera, Gazteko gunea
 13:00 Kalejira
 13:00 Umeen pilota partidak
 13:30 Mende defuzional ogi ezartza.

Erdialdeko plazan.

14:00 Umeen bankaria
 15:00 Nagusien bankaria
 Otxean bertekak eta euskal kantuek.

16:00 Igurri kontalaria
 16:00 Albuozaren bila
 17:30 Kalejira tinbaileekin.
 18:00 Herri leku erakustaldia.
 19:00 Dantza saso herrikola
 Kizaren auzadero Lurain Bankarekin

hitza

▶ **TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

Eztabaida. Zer iruditzen zaizu Tolosako Usabal kiroledegian olatu artifizial bat egitearen ideia? Proiektu originala eta herriarentzako onuragarria izango dela uste al duzu? Edo alderantziz, dirua alferrik botatzea dela? Eman zure iritzia TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO webgunean.

KIROLAK ▶

Emaizta oso desberdinak erdietsi dituzte herriko saskibaloia eta futbol taldeek; Tolosa-Aralarrekin denboraldi bikaina egin duen bitartean, Tolosa CFk entrenatzaile aldaketa izan zuen denboraldiaren erdialdean eta azkenean, sufrituta, baina jaitsiera ekidin ahal izan du **IÑIGO TERRADILLOS**

KOLDO ARSUAGA ▶ TOLOSA-ARALAR SASKIBALOI TALDEKO LEHENDAKARIA

«Nagusiek maila mantentzea eta talde bezala finkatzea dira gure helburuak»

Mailaz igotzea eta ligako txapeldun izatea lortu du Tolosa-Aralarrekin

Denboraldi bikaina burutu du aurtengo Tolosa-Aralar saskibaloia taldeak. Izan ere, liga bukatu aurretik jakin zuten mailaren igoera ziurtatuta zutela, eta horretaz gain, azken partidetan erdietsitako emaitzengatik txapeldun izatea lortu dute. Koldo Arsuaga (Tolosa, 1967) Tolosa-Aralarreko lehendakaria «oso gustura» dago aurtengo denboraldiaren eman duenaren erkin, «helburua lehen maila nazionalera igotzea baitzen, eta hori baino gehiago lortu baitugu».

Mailaz igo eta gainera, txapeldun geratu zarete. Liga amaitzeko modu onena.

Bai. Oso pozik gaude, izan ere, denboraldiaren hasieran mailaz igotzea zen gure helburua, eta hori lortzeaz gain, txapeldun ere geratu gara. Azken hau

ez genuen espero, ez baita batera erraza liga lehenengo postuan amaitzea.

Azken denboraldietan ohiko bilakatzen ari da zuek mailaz igotzearena.

Bai, egia da. Orain 5-6 urte aldaketa egin genuen. Lehenengo taldea, hau da, nagusia, egun gauden mailan zegoen, baina, gure azpitik, beheko mailetan, zulo handia genuen, eta hori lantzea erabaki genuen, horretarako estrategia martxan jarriz. Hala, beheko mailatik hasi ginen, eta 5 urtean 3 aldiz igo dugu maila. Tartean, urte hauetan guztietan, harrobi sendoa sortu ahal izan dugu, jokalaririk asko formatu baititugu. Beraz, egun, jende gaztea eta heldua dugu.

Garrantzi berezia eman diozue, beraz, saskibaloia talde-

an jende gaztearen formatzari.

Bai, noski. Pentsa, hurrengo urtean, seguruenik 3 kadete eta 2 infantil jokalaririk izango ditugu. Jende gazte ugari dugu kirola egiten eta hori zoragarria da. Jendea inplikatzeko lortu dugu.

Eta nola egiten da hori?

Seniorren mailako taldean jolastu nahi zuenak argi izan behar duen talde mailan lan egin behar duela, bai zuzendaritzan, beste taldeak ematen, entrenatzaile bezala eta abar. Gaztetxoekin lan egitea eta jendeak jokatu nahi izatea da erraza izaten, baina nagusien taldekoak asko inplikatu dira, eta horrela lortu ditugu emaitzak. Nagusiak formatzeko eta, esaterako, ikastaroak antolatzen ditugu, hurrengo 2

asteetan egingo duguna bezala.

Hurrengo denboraldian zein izango da helburu nagusia?

Talde bezala finkatzea, estruktura mantentzea. Lehenengo taldearen helburua, esaterako, maila mantentzea da. Bestalde, diruari dagokionez, aurrekontua hazi egingo da, denbor gutxian asko hazi garelako, eta orduan gehiago mugitu beharko dugu.

Zaleen babesa ere garrantzitsua izango da.

Beti izaten da garrantzitsua jarraitzaileak izatea, asko laguntzen baitute. Gure kasuan, esan beharra dago Usabal kiroldegian jokatu ditugun partidak agian ez direla ordu egokienetan izan zaleentzako, baina, hala ere, han izan dira. Azken partidetan, adibidez,



L. MONTES

jende ugari gerturatu da gu ikustera.

Bi aitzaki izan dituzue ospakizunetarako, malla igotzea eta liga. Festa izango zenuten nagusi.

Mailaz igotzea ziurtatua genuenean afaritxoa egin genuen, eta liga irabazi genuenean beste bat. Afarien ondoren, noski parranda ere egin genuen. Eta gero, urtero egiten dugun bezala, egun osoko bira. ◀

KEPA MENDIZABAL ▶ TOLOSA CF-KO ENTRENATZAILEA

«Askok sufrituta, baina azkenean jaitsiera ekidin ahal izan dugu»

Hirugarren mailan, 15. postuan amaitu du aurtengo denboraldia Tolosa CFk

Ez du oso denboraldi borobila egin Tolosa CFk. Izan ere, maila jaistekotan ere izan dira, baina azkenean, mantentzea lortu dute, 15. postuan amaituz. Kepa Mendizabalek (Tolosa, 1968) Tolosa CFko entrenatzaileak asko sufritu dutela, baina dena ondo atera dela azaldu du.

Denboraldi zaila izan da aurtengoa.

Bai, baina azkenean jaitsiera ekidin ahal izan dugu. Dena ondo atera da, baina asko sufrituta. Egia esan, postu hobean amaitzeko taldea genuen baina ezin izan dugu, eta hori bolada onak ere izan ditugula, baina ez da nahikoa izan.

Zein izan da arazoa?

Entrenatzaile aldaketak zeresan handia izan du honetan

guztitan. Horrelako aldaketa bat badago, taldea hain ondo ez dagoelako izan ohi da. Eguerrietan hasi nintzen ni taldea entrenatzen, eta presio handia zutela jokalariek ikusi nuen. Taldea elkartzeko egin nuen lan, eta uste dut hori lortu genuela.

Hirugarren mailan gauzak ez dira hain errazak.

Hirugarren maila oso konplikatu da. Gure kasuan, argi eduki behar dugu non gauden eta nortu garen. Izan ere, esaterako, maila honetan hainbat taldetako jokalariek soldata ere izaten dute, dirua dutelako, noski. Baina ez da gure kasua.

Zer egin behar duzue hurrengo denboraldian begira?

Hurrengo urterako baditugu dagoeneko baja batzuk, beraz,

postu horiek betetzea da egin beharreko lehendabiziko lana. Eta hori ez da oso erraza izango; lehen esan bezala, beste hainbat taldek maila honetan dirua duten bitartean, gurean ez da izaten jokalarientzat, eta horregatik beste taldeetara josten dute. Dena den, jubeniletan-eta baditugu jokalaririk onak eta hortik joko dugu hutsune horiek betetzeko. Atezaina, eta hegaletarako behar ditugu jokalaririk. Hurrengo urteko taldean, beraz, arpegi berriak egongo dira, baina entrenatzen Justo Lillok eta nik jarraituko dugu.

Zaleak aldean izatea ere garrantzitsua izaten da, une gozoretan eta oparotetan.

Bai, hala da. Berazubiren kasuan, esan beharra dago ohi-

ko jendea joan izan ohi dela gure partidak ikustera. Baina hori ez da gurean soilik gertatzen, joaten garen beste zelaetan ere, orohar, ez da jende asko egoten harmailetan. ◀



E. EZEIZA

GOIERRIKO HITZA-K KAZETARIA behar du

▶ **Eskatzen da:**

- ▶ Kazetaritza arloko ezagutza izatea, antzeko lanetan aritua izatea eta eskualdea ondo ezagutzea.
- ▶ Euskaraz ondo egitea.
- ▶ Izaera dinamikoa izatea.
- ▶ Gidabaimena eta autoa edukitzea.

Interesa izanez gero, bidali curriculumla, **ekainaren 27a** baino lehen, helbide honetara:

Helbide elektronikoa: goierrigoierrikohitza.info

Posta helbidea: **Urbalde plaza, 7, behea. 20200 BEASAIN**

POLITIKA ▶

EAEk «dagozkien eserlekuak» eskatuko ditu udal osaketetan

Ezker abertzaleak deituta elkarretaratzeak egingo dira hainbat herrietan osoko bilkuraren aurretik; Lizartzan eta Elduainen ezingo dira gaur osatu Udalak

IMANOL GARCIA

Udal hauteskundeetan EAE-ANV baliogabetu zuten Tolosaldeko herrietan, alderdi honen «dagozkien eserlekuak» hartzeko asmoa azaldu du gaur egingo diren udala osatzeko ekitaldietan. Salbuespena Irura eta Areso izango dira. Iruran PSE-EEk eta PPK ez zuten botoen %5a lortu eta, beraz, aurreko legealdiko Udalak jarraituko du funtzioetan. Areson, EAE-ANVko bozkatzaila potentzialak orokorrean Areso Eraikiz herri plataformari eman zioten botoa. Bestalde, EAE-ANV aurkeztu ahal izan den zenbait herriaren ere elkarretaratzeak egingo dituzte, ezker abertzalea aurkeztu ahal izan ez den herrietako «egoera antidemokratikoa» salatuz. Amezketan, 11:30ean elkartuko dira udaldira aurrean; Anoretan 12:45ean udaldira aurrean eta Villabonan, 10:30ean plazan.

ASTEASU

EAE-ANV bere datuen arabera lortutako zinegotziak beraien eserlekuak eskatzera joango dira gaur, 10:00etako osoko bilkurara. Aurretik, 09:30ean elkarretaratzea egingo dute. Ezker abertzaleak eta Bai Asteasuri zerrendako kideek bilera egin dute. Iñaki Aménabar Bai Asteasuriko zerrendaburuak azaldu duenez, «guk



Gaur egingo dute Udalen osaketa, Ibarra, esaterako. A. IMAZ

karguak hartu edo ez ezin dituzte bete eserleku horiek. Beste foro paralelo batzuen birtartez Udalean parte hartzeko aukera zabaldu diegu, baina ezezkoa esan dute». Asteasuko ezker abertzaleatik esan duteenez, «aukerak daude gure eserlekuak izateko, beste herri batzuetan gertatu den bezala. Foro paralelo batzuk sortzearen bideak ez digu ziurtasunik ematen eta horregatik ezezkoa eman diogu. Ez diegu borondateirik ikusten irtenbidea bilatzeko».

ELDUAIN

Elduainen ez dute gaur alkatearen izendapenik egingo. Tolosaldeko Hauteskunde Batzordeak PPren bost hautagaien uko egitea onartu zuen, baina 250 biztanle baino gutxiagoko

herria denez «plaza horiek bertzeko aukerarik ez dagoela» azaldu du. Izan ere, bertan, pertsonari zuzenean bozkatzeko zaio. Horrela, aurreko legealdiko Udalak funtzioetan jarraituko du edo Foru Aldundiak batzorde bat eratuko du. Elduaineko ezker abertzalea atzo arratsaldean biltzeko zen gaur zer egingo duten erabakitzeak.

IBARRA

Ezker abertzaleak dei egin du 11:00etan plazan elkartzeko gero osoko bilkurara joateko. Ezker abertzaleak azaldu duenez, saiakera egin du beste alderdiekin elkartzeko. EAJrekin ezin izan dutela elkartu esan dute eta EArekin elkartzekoak direla. Ezker Batua-Berdeak zinegotzi kargua hartuko dutela esan zien, proportzionaltasun

legearekin ez datozelako bat eta beraiei zinegotzi bat egokitzeko zaila argudiatuz. Ibarra ezker abertzaleak «gehienengo batek Udalean ordezkariarik ez izatea injustizia nabaria» dela azaldu du.

LEABURU

Ezker abertzaleak gaur 11:00etan plazan elkarretaratzea egingo du. «Egoera ez demokratiko hau» salatzen du ezker abertzaleak eta Bide Berriak plataformakoei «herriaren hitza errespetatu dezatela» eskatzen diete. Bide Berriak plataformatik azaldu duenez, gaur «herritar normal batzuk bezala joango gara. Bakean eta normaltasunean joango gara eta denok ere hala egotea nahiko genuke».

LIZARTZA

Lizartzako Udala ez da osatuko gaur, hauteskundeetara hasieratean aurkeztutako PPren zerrendagaien uko egitea Gipuzkoako Boletín Ofizialean publikatuta ez egoteagatik. Hortaz, zerrendagai berriek ezingo dute kargurik oraindik Udalean hartu. Bere aldetik, Lizartzako ezker abertzaleak 11:30ean udaldira aurrean elkarretaratzea egingo du. 12:30ean ekitaldi nazionala egingo dute eta bertan mahai nazionala kide batek hartuko du parte. Ondoren manifestazioa egingo dute.

TOLOSA

Ezker abertzaleak elkarretaratzea deitu du 11:30ean udaldira aurrean eta azaldu du eserlekuak eskatuko dituztela. Tolosan bilerak egin ditu ezker abertzaleak EAJ, EA eta Aralarrekin. EAE-ANVko Antton Izagirrek adierazi duenez, «guri dagozkigun eserlekuak ez hartzeko eskatu dugu eta hortik aurrera ikustea nola aplikatu daitekeen legea. Herriaren borondatea errespetatzea eskatzen diegu». Bere aldetik, EAJk karguak hartuko ditu. EAJko Jokin Bildarratzek azaldu duenez, ezker abertzaleari «gauzak aurrera eramateko diskretzioa, jarrera baikorra eta ardatz bezala elkarriketa erabiltzea eskatzen diegu». Bestalde, Udalean «parte-hartzea, erabakia izatea eta kontrola egitea» eskaintzen dietela, baina «gure edo beste zinegotzietzuei mehatxuak egitea» ez dutela onartuko dio Bildarratzek. EAK ere karguak hartuko ditu. EAKo Onintza Lasak Alderdien Legearen aurka dardela azaldu du. «Egoera konpundu behar dugu eta horretarako ezinbestekoa da elkarretaratzea», esan du, «baina zinegotzietzuei kargua uzteko intimidazioetan arituta gauzak ez dira konpunduko. Bidea ez da tentsioarena, elkarriketarena baiziki». EB-Aralar koalizioak ez du bigarren zinegotziaren kargua hartuko. «Tolosar gutziek Udalean euren aukeraturako zinegotziak izateko eskubidea dute eta, ondorioz, Alderdien Legea lehenbailehen bertan behera uztea eskatzen dugu».

ZIZURKIL

Osoko bilkura 11:00etan egingo dute Zizurkilen. Horren aurretik, 10:30ean, elkarretaratzea egingo du ezker abertzaleak udaldira aurrean. Marian Lazkano EAJren zerrendaburuak azaldu duenez, zinegotzi karguak hartuko dituzte. «Ezker abertzalearekin hitz egiteko prest gaude udal gestioaren inguruan», azaldu du Lazkano. Ezker abertzaleatik esan dute eserlekuak eskatuko dituztela. Izandako bileretan, beste alderdiek «konponbiderako borondateak» ez dutela azaldu gaineratu dute. «Legeak aukerak ematen ditu guri dagozkigun zinegotzi karguak hartzeko. EAJk dio Alderdien Legearekin ez dagoela ados, baina ez da pasatzen ekintzetara», azaldu dute. «Negoziatzeko prest gaude, baina gure zinegotziak errespetatu egin behar dira», diote eta gaineratu: «Azken lau urtetan ez da eman eskaintzen duten elkarlana. Ondo gelditzeko makillajea besterik ez da izan».



UZTURPE IKASTOLA

“Dabilen herriari ez zaio geroaldiorik lotzen”

ONDO PASA ZUEN JAIK!

Egialde, 2 • IBARRA • Tel: 943 67 12 99



TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

EZ. 5 "BEOTIBAR KALEAREN LUZAPENA" EREMUKO BARNERREFORMARAKO EGITASMO BEREZIAREN ALDAKETA. JENDAUURREAN JARTZEA.

Tolosako Udaleko Gobernu Batzarrek, 2007ko ekainaren 4an egingandako bilera, bestek beste, ondorengo zati xedatzailean duen erabakia hartu zuen:

Lehen. -Hasierako izaeraz onestea Construcciones Aitz-Ono, SA delakoak sustatzen duen EZ.5 "Beotibar kalearen luzapena" eremuko Barne Erreformatarako Egitasmo Berezia Aldatzeko dokumentua, Juan Jose Gurrutxaga Chacón arkitektoak idatzi, eta Arkitektoen Elkargo Ofizialak 2007ko martxoaren 29an bisaturikoa.

Bigarrena. -Entitate Lokalen Ondasunen Arautzaren 8.4.a) artikulua eta Erregimen Lokaleko Oinarrien Legeko 81.2.a) artikuluen arabera, planeamendu dokumentu honen behin betiko onepena automatikoki aldaraziko du kalifikazio juridikoa, aldatzen den Planean jasotzen diren jabetza erabilera publikoko bide espazioa (Inperu kalea eta Rondilla kalearekin komunikatzen duen kalekoaren zati bat).

Hirugarrena. -Plana jendaurrean jartzea, Gipuzkoako AO-ean eta tirada handienetako egunkarietan hasierako onepena emateko erabakia argitaratuz. 20 eguneko egingo da jendaurrean, azken argitalpenaren egunetik aurrera.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Euskadiko Lurzuraren eta Hirigintzaren Legeak, 95. Artikuluan (97.k dionari lotuta) aurreikusitakoaren arabera espediente jendaurrean jartzen da HOGEI EGUNEZ, interesatuek beren interesen aldeko alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Horretarako iragarri hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Berria, Diario Vasco eta Tolosaldeko Hitza egunkarietan argitaratuko da, eta epea azken argitaratzea egiten den egunetik zenbatuko da.

Epe horretan espediente agerian egingo da Udaltzeko Hirigintza Bulegoetan, Plaza Zaharra, 6-B eraikinean, eta alegazioak egin nahi izanez gero eraikuntza horretan beretan kokatzen den Erregistro Orokorrean aurkeztu behariko dira.

Tolosan, 2007ko ekainaren 13an. ALKATEA.

KULTURA ▶

Eskualdeko bertsolari gazteak punta-puntan

Imanol Irazustabarrena alegiarra Altsasuko Euskal Herriko Txapelketan ariko da txikien mailan, hilaren 23an



Irudian, Labaka eta Irazustabarrena. HITZA

ERREDAKZIOA

Joan den ostiralean jokatu zen Bergarako Udal Frontoian XVII. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finala bat-batekoan. Bertan bi maila bereizten dituzte; txikiena, 14 urte bitartekoak eta gaztetxoena 14-18 artekoak. Ondoren bertso paper lehiaketako emaitza eta sariak ere banatu zituzten.

Asteasuko Haritz Mujika (11 urte) izan zen bere mailan txapeldun, bertso paperetan. Honako hauek ere aipamenak jaso zituzten: Oihana Iguaran (Amasa, 15 urte), Unai Mendizabal (Zizurkil, 15 urte).

Bat-bateko sailean, berriz, txikien artean, taldeka jokatzeko da, eta finalean denera 4 talde izan ziren: horien artean, hirukote bat Asteasuko bertso eskolatik, bertan elkartzen dira Alegiko Imanol Irazustabarrena, Maddi Labaka lasartearra eta Haritz Mujika bera. Iaz bezala bigarren geratu dira final handian. Haritz Mujikak paperekoa irabazi du aurten ere, baina berak dioen moduan, «bat-batekoan gusturago sentitzen naiz. Ordiziako kanporaketan, hala ere, gusturago ibili nintzen finalean baino». Lau urte daramatza bertsoetan, eta hirutan idatzizkoan sariak jaso ditu asteauarrak. «Imanolekin eta Anerekin oso ondo moldatu naiz».

Hala ere, Imanol Irazustabarrena alegiarra aukeratu zuten Amaia Iturriotz Urretxu-Zumarraga taldeko bertsolariarekin batera Euskal Herriko Txapelketara joateko. Gipuzkoako ordezkari gisa. «Oso albiste ona da hori», dio Amaia Agirre prestatzaile eta bertsolariak.

Euskal Herriko finala Altsasun izango da hilaren 23an. Bi gazte hauek Sabino Arana Bertso Paper Lehiaketa irabazi zuten, eta Valentziara (Herrialde Katalanak) bidaia bat irabazi zuten, baina hilaren 23an joateko zen. Bi bertsolariak ez zuten zalantzarik izan: Altsasuko finalean joatea nahiago izan dute.

Gipuzkoatik bi ordezkari doaz txikien mailan, eta bat Imanol Irazustabarrena da. «Ez nuen hautatua izatea espero. Altsasuko finalean ez dut irabaztea espero, baina lan txukun bat egiten saiatuko naiz. Aitak ere asko laguntzen dit».

Handien mailan ere ondo

Handien mailan, berriz, Lasarteko Ane Labaka eta Aritz Garin billabonatarra aritu ziren Gipuzkoako finalean. Lehena Asteasuko bertso eskolara joaten da eta Aritz Garin Villabonako bertso eskolako ikaslea da. «Biek oso maila ona eman zuten finalean. Lehen bi sariak soilik alpatzen dira, beraz, ez dakigu zortzi finalistetatik

SARIAK ▶

- Bertso Paper Lehiaketan sariak.** Haritz Mujika.
- Aipamenak.** Oihana Iguaran eta Unai Mendizabal.
- Bat-batean txikiak.** Asteasuko bertso eskola 2..
- Bat-batean handiak.** Ane Labaka eta Aritz Garin.
- Euskal Herriko Txapelketara txikietan.** Imanol Irazustabarrena.

zenbagarren geratu ziren baina lehen postuetatik azkenekotatik baino askoz gertuago».

Aritz Garin «oso indartsu» hasi zen, txapelerako hauta-gaia zen, baina azken bertsoan estropozu egin zuen eta hortxe galdu zituen aukera guztiak: bertsolari gazteak gogoratzen duenez, «jarritako gaia ez nuen ondo ulertzen, eta horrek ez zidan mesede egin; bestela, pozik nago egindakoarekin, uste baitut saio polita atera zela». Lastima izan zen, azken urtea baitzuen bertan parte hartu ahal izateko, dagoeneko 18 urte egingo baititu aurten.

Halere, eta animo askorekin adierazi zuen ere «urria aldera helduen txapelketa nagusian ateratzeko asmoa dut, gutxienez, probatzeko: esperientzia bezala mundiala izango da. Beti bertsoekin bueltaka nabil, eta bat-batekoan aritzea lehen baino gustukoagoa dut, xarma gehiago dauka». Ane Labakak, aldiz, lehen urtea zuen helduen mailan, iaz Euskal Herrikoan bigarren egin ondoren txikien mailan. Bertsolari maila ona erakutsi dute, beraz, eskualdeko bertsolari gazteek, bai idatzizkoan, bai bat-batekoan ere.

ALEGIA ▶

Festetan zikiro jaterako izen-ematea zabalik

Alegiko jaien baitan, uztailearen 13rako jadanik zikiro jaterako txartelak salgai daude. Uztailearen 1era arte eros daitezke Etxeberrri, Jubila-tuak, Kafe Letamendia, Iskina eta Kurpil tabernetan. 21:00etan izango da eta eta 23:00etan honako bertsolariak ariko dira: Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Jon Maia. Ondoren, Izotz musika taldeak dantzaldia eskainiko du.

IKAZTEGIETA ▶

Ariketa fisikoei buruzko hitzaldia, ostiralean

Hilaren 22an hitzaldi bat izango da ikaztegiako liburutegian, 17:00etan. Kutxako Gizarte Ekintzak antolatuta. Gaia honakoa izango da: *Mugitu zaitez, ez zara damutuko*. Programa hau da: Gorputz-ariketak egiteak dituen mesedeak eta abantailak, gomendioak eta hainbat gorputz-ariketa mota, gorputz-ariketei buruzko arretan neurriak eta kontraindikazioak, eta abar.

IKAZTEGIETA ▶

Ikasturte bukaerako jaiak, gaur

Ikaztegiako guraso elkarteak antolatutako eskolako ikasturte amaierako jaiak izango da gaur: 11:00ak aldera kiroldegian pilota eta futbol erakustaldia izango da, eta ondoren dantza saioa, ahal bada plazan egingo dutena. Elkarrekin bazkaldu ondoren, 17:00ak aldera puzgarriak izango dira, eta gero, haurrek *Egin kantu* saioko kantuekin karaokea egingo dute, eskolan prestatutako emanaldi bitxia.

PILOTA ▶

III. Pilota Topaketa, gaur, Beotibarren

10:00etan, Beotibar pilotalekuan III. Pilota Topaketa izango da. Bertan, Zazpi-Iturri, Aduna, San Esteban, Alkiza, Behar-Zana, Anoeta, Alegia, Villabonako eta Andoaingo pilota eskolako pilotariak ariko dira. Prebenjaminetatik hasi, eta seniorren mailara arte izango dira partidak, maila bakoitzeko bat, hain zuzen. Guztiak binakakoak izango dira, seniorrekoak ezik. Zelaia eta Lizaso izango dira pilotari zaharrenak.

MUSIKA ▶

Loatzo musika eskolako kontzertuak

Loatzo musika eskolakoen ikasturteari bukaera emateko kontzertuak eskainiko ditu hainbat herritan: etzi, Adunan 18:00etan ariko dira; asteartean Ibarren 19:00etan, asteazkenean 18:30ean Alegian, Kultur Etxean. Ostegunean, berriz, 18:00etan Villabonako Gurean ariko dira, ordu berean Alton Lizarben, eta 19:00etan, aldiz, Anoetako Udaletxean audizioa izango da. Hauetara denak daude gonbidatuta.

Beti nahi jatekoa
Garaian garaiko janariak
Arraikietan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Errementei kalea, 16 • 20400 TOLOSA

ELEKTRIZITATEA

Euskal - Herria, 27
IBARRA
Tel. 943 67 32 80

aspepelota.com

PILOTA PARTIDUAK

Ekainak 18 • Astelehena
16:30

Baleztena - Arruti
Larralde - Urberuaga

TITIN III - LASKURAIN
MTEZ. DE IRUJO - PASCUAL

Berasaluze IX
Apezetxea - Zubieta

Tolosako Beotibar pilotalekuan

VILLABONA ▶

Behar-Zanako pilotariak, gaur eta bihar

Gaur 10:00etan Tolosaldeko III. pilota Topaketen finalak jokatuko dituzte: Behar-Zanako Iñaki Lizasok lau t'erdiko finala jokatu du, eta elkarteko Aitor Ormazabal eta Jon Erasunek alebin mailako eskuz binakako finalerdia jokatu du Añetean, 18.00etan. Bestalde, bihar errebote taldeak Euskal Herriko txapelketaren finalerdia jokatu du Iparraldean. Autobusez joan nahi duenak, 661 285 041 zenbakira deitu beharko du.

ERREMONTA ▶

Altuna II.a eta Patxi Zeberio Galarretan

Gaur, 16:00etan erremonte jaialdia antolatu dute Hernaniko Galarreta pilotalekuan. Bigarren partidari Patxi Zeberio elduaindarrak Iriarterekin jokatu du Ezkurra-Badiola bikotearen aurka. Ondorengo partiduan berriz, Amezketako Altuna II.ak Urrutia lagun duela, Juaristi eta Lizaso izango dituzte ari. Eskualdeko bi erremontistak, estelarrek partidak jokatu dituzte gaur arratsaldean.

TOLOSA ▶

Epea zabalik Imersoko bidaietarako

Tolosako Gizarte Zerbitzuetatik jakin arazi dutenez, Imersoko 2007/08ko bidaiak egiteko eskaera, Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuetan aurkitzen dira. Bertan eskaera egin nahi duten guztiak, bidaietan izena emateko, bertara agertu beharko dute hilaren 30a baino lehen.

ARAMBURU
Alokatzeko (Tolosa),
Pisua San Frantzisko kalean.
Alokatzeko (Tolosa),
Garajeak, Araba etorbidean irekia eta San Frantziskon itxia.
Alokatzeko, Pabilioi industrialak, Leaburuko bidean.
Salgai (Tolosa),
Pisua "La Estrella" eraikinean.
Salgai (Tolosa), Pisua Bizkaia kalean, guztiz eraberritua (Sputnik dorrean).
Salgai, Garajeak, Euskal Herria kalean, irekiak lbarran.
Salgai (Tolosa),
Garajeak Leidor azpian.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

VILLABONA ▶ KIROLAK

Denboraldi amaierako bazkaria

Kirol Elkarteko jokalariek, gurasoak eta entrenatzaileak mahai inguruan



Villabonako Kirol Elkartean denboraldi amaierako bazkaria. HITZA

ASIER IMAZ

Villabonako Kirol Elkartekoek aurreko larunbatean denboraldi amaierako bazkaria burutu zuen Tolosako Usabal sargardotegian. Bertan, elkarteko lau kategorietako futbol jokalariek, gurasoak eta entrenatzaileak elkartu ziren. «Denboraldi guztian botatuko izerdia» sargardotegian berreskuratu zituzten alebin, infantil, kadete eta jubenilek. Azken hauen kasuan gainera, aurtengo denboraldia, Villabonako Kirol Elkarteari lehiatu duten azken denboraldia izan da. Egindako lanaren esker on gisa, elkartek ordulari bana oparitu zien jokalariei bakoitzari, oroigarri modura.

Denboraldiaren balorazioa

Elkarteko partaide eta entrenatzaileetako bat den Mikel Elizegik denboraldiaren balorazio «ona» egin du. «Infantilak, kadeteak eta jubenilek urte ona egin dute, hirurak igoerako faserak sailkatu dira eta beraz gustura aurkitzen gara. Alebinen kasuan, talde txukun bat osatu dugu. Hala eta guztiz ere, hauekin emaitzak edo sailkapenak baino garrantzi handiagoa du euren artean sortzen den taldeko giroak. Nagusiki hori bilatzen da alebine-

kin, izan ere kontuan eduki behar da hauek maila guztietatik pasatu diren jokalariek izango direla eta giro ona izatea beharrezkoa dela».

Guztira «100 gazte inguru» mugitzen ditu Villabonako Kirol Elkartek. «Hauek denboraldi amaierako urteroko bazkarian elkartu genituen, guraso, entrenatzaile, zuzendaritza eta urte guztian lanean arituz den guztien artean harremanak hobetzeko egiten dugu bazkaria. 180 pertsona inguru elkartu ginen eta hemen ere giroa sortzea da helburua, giro onarekin lan egitea beti izaten baita errezagoa» aipatu zuen Mikel Elizegik. «Jendearen parte-hartzea beharrezkoa da. Zuzendaritza saiatzen ari da, gurasoen partaidetza bultzatzen elkarre barnean, hau da, semeak ikustera edo eramatera joateaz gain, azpiko lana ere egin dezaten».

Herrira begira berriz, Elizegik positiboa ikusten du Kirol Elkartean lana, «izan ere garrantzitsua dela uste dut herriko gazteak kirola egiten dutela ikustea. Aberasgarria dela iruditzen zait, bai gazteentzat eta baita Villabonarentzat ere».

Etorkizunari begira berriz, orain artean bezala jarraituko dutela aipatzen du Elizegi entrenatzaileak; «urteroko moduan jarraituko dugu lanean».

TOLOSA ▶ KIROLAK

Denak Pizzak taldeak igoera berri bat lortu du



Denak Pizzak talde tolosarrak mailaz igoetzea lortu du. HITZA

A. IMAZ

Denak Pizzak areto futbol taldeak, hurrengo denboraldian Lurraldeko Lehen Mailan jokatu du igoera ligaska irabazi ostean.

Denboraldi aparta burutu du Denak Pizzak talde tolosarrak. Igo berria zen maila bati eutsi ezezik, bigarren postuan sailkatzea lortu zuen liga erregularran. Dena den, ordura arte eginiko lana alferrikakoa izan zitekeen igoerako finalerdietan kale eginez gero, baina euren zorionerako, 3-2 gailendu zitzaion luzapenean Gure

Txokoa talde nafarrari. Behin igoera eskuratuta, asteburu honetan txapelketako finala jokatu zuten Lazkaon Ayeteren aurka. Partida «zirrarragorri baten ostean», tolosarrek 2 eta 1eko emaitzarekin garaitu zituzten donostiarrak norgehiagokaren azken txanpan. Denak Pizzak taldea, duela 3 urte sortu zen lagunartean lehiatzeko helburuarekin. Kideen artean dagoen «giro bikaina» baliatuz, bitan jarraian lortu dute mailaz igoetzea. «Berdietan kale eginez gero, baina eskerrak ematen dizkiogun».

TOLOSA ▶ KIROLAK



Txapeldunorde geratu dira Hirukideko neska alebinak

A. Imaz ▶ Iragan larunbatean, hilaren 6an, Hirukideko alebin neskek, areto futboleko Gipuzkoako Txapelketako finala jokatu zuten Villabonako kiroldegian Axular Lizeoaren aurka. Partida «polita eta berdindua» izan zen. Horren ondorioz, garailea penaltietan erabaki zen. «Txapeldunordeak gelditu dira beraz, eta Hirukide eskolatik zoriandu nahi ditugu, batez ere euren entrenatzaile, orohar egin duten lanarengatik». HITZA

LEITZA ▶ PILOTA

Dena prest Barriola eta Olaizolaren arteko final handirako

Finala amaitu ondoren herritarrek festa handia egingen dute Basa-Kabin, eta Abel Barriolaren konpainian afalduko dute



Aimar Olaizola eta Abel Barriola azaroan Tolosako Beotibar Pilotalekuan. M. SOROA

NAIARA GARZIA

Dagoeneko dena prest dago Buruz Buruko Txapelketako finalerako. Biharko egun handia baino lehen ezinbesteko errituala den material hautaketa ere herenegun egin zuten, fina-

la jokatu den frontoi berean, Donostiako Atano III. an bertan.

Abel Barriolak 102,4 eta 104,2 gramoko pilotak aukeratu zituen eta Aimar Olaizolak, aldiz, 104,1 eta 105,7 gramokoa. Hautaketarekin bi pilotariak «gustura» gelditu ziren

arren, iritzi ezberdinak erakutsi zituzten Olaizola II.ak aukeratutako piloten ezaugarriekiko. «Olaizolak orain ez ditu hautatzen lehen ohi zituen pilota astun haiek», esan zuen Barriolak. «Bereak nireak baino gutxiago irtetzen dira frontise-

tik, baina askoz gehiago ibiltzen dira azpitik. Mugitzeko errazak dira, lau t'erdian jokatzen gurenean ere antzekoak hautatu zituen».

Goizuetarrak, ordea, ukatu egin zuen, beti hartu izan dituen antzeko pilotak aukeratu zituela azalduz. «Nik betiko pilotak aukeratu ditut, ez arinagoak; bat, gainera, mugitzeko oso zaila da».

Sebastien Gonzalez pilotariak ere Aimar Olaizolaren aurka jokatutako finalerdia baino lehen goizuetarrak dagoeneko ez zuela hain material pisutsua aukeratzen esan zuen. Hautaketa honek goizuetarraren eskuinaren joaren beherakadari eragotzi zion Azkaineko pilotariak. Goizuetarrak ordea, beso ondo duela adierazi zuen herenegun. «Beso ondo dut, askotan esan dut, eta txapela irabazita ere, ez nuke uste hori aldenduko».

Eztabaida honetatik harata, finalak piztutako ikusmina nabarmena da. Sarrerei dagoeneko, egunean bertan saldu ziren. Hilaren 5ean 08:30ean jarri zituzten salgai eta 10:00etarako txartel guztiak saldu ziren. Halere, sarrera guztiak saldu eta egun arren, egun osoan zehar telefonoz 900 bat sarrera eskaera jaso zituen Asegarek, eta webgurean bitartez, beste 300 bat eskaera.

Egun handia Leitzan

Biharko, Euskal Herrian ez zik, Leitzan ere pilotaren egun handia izanen da. Askok etetik ikusiko dute finala, baina herriko tabernetan ere jende ugari bilduko da. Aste honetan zehar, herriko zenbait tabernetan jendeak egindako apustuak ere ikusi ahal izan dira. Musunzarren esaterako, barraren atzean zintzilik dituzte zenbaitek egin dituzten apustuak, 250 euro eta 500 euro bitartekoak. Hori bai, Olaizolaren aldekoak dira gehienak. Buruz Buruko amaitu ondoren, gainera, herritarrek afaria egingen dute Basa-Kabin, eta Barriolaren konpainian afalduko dute.

LEITZA ▶



Mikel Nieve txirrindularia. N.G.

Mikel Nieve Orbea Oreka SDA taldeak fitxatu du

Adituen ustez denboraldi honetako txirrindulari amateurrik onena da

ERREDAKZIOA

Mikel Nieve txirrindularia Orbea Oreka SDA taldeak fitxatu du urtebeterako. Honen arabera, 2008. urteetik aurrera profesional mailan arituko da leitzarra. Talde honek hurrengo denboraldirako bi txirrindulari gazte kontratatzea erabaki du, eta Mikel Nievekin batera, Jonathan Castroviejo Getxoko txirrindularia aukeratu du.

Mikel Nieve orain arte Caja Rural taldean aritu da, eta Espainia mailan denboraldi honetako txirrindulari amateurrik onena dela esaten dute askok, izan ere maiatzean amaitu den Espainiako Kopan txapeldunorde izan da.

Txirrindulari leitzarrek Orbearen fitxaketaren inguruan bere iritzia eman du. «Banekien emaitza onak lortzen ari nintzela, baina ez nuen espero».

BARRIOLA ETA OLAIZOLA II.A ▶ PALMARESAK

ABEL BARRIOLA

1999. Bigarren mailako buruz buruko txapelduna.

1999. Bigarren mailako Binakako txapelduna.

2001. Lau t'erdiko txapelduna.

2002. Buruz Buruko txapelduna.

2002. Nafarroako Lau t'erdiko txapelduna.

2004. EPELeko Lau t'erdiko

txapelketako txapeldunordea.

2006. EPELeko Lau t'erdiko txapelketako txapeldunordea.

AIMAR OLAIZOLA

1999. Bigarren mailako banakako txapelduna.

2002. Lau t'erdiko txapelduna.

2003. Banakako txapeldunordea.

2003. Binakako txapeldunordea.

2004. Lau t'erdiko txapelduna.

2005. Nafarroako Lau t'erdiko txapelduna.

2005. Lau t'erdiko txapelduna.

2005. Eskuz banakako txapelduna.

2006. Eskuz banakako txapeldunordea.

2006. Eskuz binakako txapeldunordea.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA


HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Tel.: 943 65 56 95



AGURRAK ▶



ZORIONAK!

Eskerrik asko lagundu duzuen guztioi. Denon artean lortu dugu. Gurea da garaipena. (Irrako Herri Ekimena)



ZORIONAK!

Iban eta Marian. Ondo pasa zuen ezkontza egunean. Zuen lagunak.

AGENDA ▶

JAIK

Ibarra. Gazte Festak: 16:30ean mus txapelketa Sendi Ekintzan; 17:00etan Kixka haur ikuskizuna plazan; ondoren txokolatada eta tortilada Gazte Asanbladaren txozna; 18:30ean Alurr; 23:00etan Drindots plazan eta Gas taldea kalean.
Tolosa. Goiz guztian, sanjoanetako aparteko azoka; Tolosaldeko San Joan Pilota Txapelketako finalak (alebinak, infantilak, kadeteak eta jubenilak) 10:00etan, Beotibar pilotalekuan; goiz eta arratsaldean, San Frantzisko pasealekuan, kale saskibaloia (3 x 3); 17:00etan Graffiti-skate erakusketa, Trianguloa plazan; 18:00etan Kultur Etxeko dantza tailerreko ikasleen emanaldia Leidorren; 18:00etan Euskal Herriko Segatxapelketa lurreamendin eta 19:00etan Berdura plazan, Sagardo Txapelketa, San Joan saria.

DEIALDIAK

Ikaztegieta. Kiroldegian 11:00etan elkartuko dira eta pilota eta futbol erakusketa izango da ikasleen eskutik. Eguraldi ona eginez gero, dantza saioa plazan izango da eta ez kiroldegian. 17:00etan puzgarriak izango dira.

Tolosa. Udaberri Dantzari Taldeko *Belaunaldien emanaldia*. Bilkura Trianguloa plazan eta ondoren kalejira dantzatua alde zaharen barrena plazetan dantza eginez, goiz guztian zehar.
Tolosa. 19:30ean Musika Eskolako Areto Nagusian Musika Eskolako ikasleen kurso bukaerako kontzertua. Haizezko eta metala instrumentuen kontzertua talde ezberdinetan.
Tolosa. Sakramentinoen mendeurreneko ekitaldien barruan, meza gotzainarekin 12:00etan Korpus Kristin.
Tolosa. San Joan jaien barruan hilaren 23an egingo den Koadrilen Egunerako txartelak salgai daude 20 eurotan Orbela tabernan, ostiraletan 19:00etatik 21:30era bitarte eta larunbatetan 11:30etik 14:00etara.
Tolosa. Urtero Topagunetik antolatzen duten Arcachoneko ur parkera irteera hilaren 27an izango da. Animatzen direnek 18 euro ordaindu beharko dituzte, Topaguneari bertan.
Zizurkil. Elbarrenako jaietarako kartel lehiaketa. Informazioa eta izen-ematea, Aurrera plazako udal bulegoetan. Epea: uztailak 6.
Zizurkil. Ekainaren 25etik uztailaren 20ra izango diren *Oporretan Euskaraz 2007* udaleku irekietarako izen-

ematea zabalik udalebtean. Gurasoen bilera, ekainaren 21ean 18:30ean Atxulondo kultur etxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

ekainak 16

Thurrako Gazte Festak

16:30 MUS TXAPELKETA

17:00 "KIXKA" TALDEKOA

MUSIKAZIEN PLAZAN

18:00 TXOKOLATADA ETA TORTILADA

18:30 "GRAFFITI" SKATE ERAKUSKETA

23:00

drindots

18:00 "GRAFFITI" SKATE ERAKUSKETA

23:00

18:00 "GRAFFITI" SKATE ERAKUSKETA

23:00

OINKARI dantza taldeak

aurkezten du:

"aspaldikotik"

Dantzariak: OINKARI dantza taldea
 Dantza zuzendaria: Edu Murumendiaraz
 Musika zuzendaria: Xanet Arozena
 Soinuteknikaia: Unai Moraza
 Argien diseinua: Carlos Solano
 Argi teknikaia: Iker Ugaldel
 Testuaren egilea: Juan Kruz Igerabide
 Namazioak: Iñaki Bereaite

Ekainak 16 larunbata, gaueko 22:30tan
 Billabonako Olaederra kiroldegian

Sarrera 5 €

OHARRA: Sarrerak salgai Billabonako Olaederra kiroldegian ondoko egunetan:
 Ekainak 11, 12, 13, 14 eta 15 (11:00-13:00 eta 17:00-20:00)
 Ekainak 16 (11:00etatik aurrera egun guztian)

www.oinkari.net

99 posta kutxatila, 20150 Billabona (Euskal Herria)

hitza